

Ordiziako **igerilariak** Espainiako **txapelketan**



Ezkerrean, Lander Iturrioz eta eskubian, Eneko Aierza Ordiziako igerilekuan ateratako irudian. ARIANE VIERBÜCHER

Ariane Vierbücher Ordizia

Ordiziako igeriketa elkarteko ki-deak Eneko Aierza eta Lander Iturrioz gazteak. Espainiako junior mailako igeriketa txapelketatik iritsi berri da lehena, eta aurki bigarrenak hartuko dio erreleboa, uztailaren 28an Malagara joango baita, infantil mailako Espainiako igeriketa txapelketara.

«Esperientzia oso polita izan da Kanariar Uharteetan bizi izan dudana» nabarmendu du Aierzak. 17 urte ditu eta Kanariar Handian jokatu den Espainiako Udako Igeriketa Txapelketan izan da uztailaren 14tik 17ra. 50 metro librean, 100 librean eta 200 librean parte hartu du. «Pozik nago lortutako emaitzekin, oso denbora onak lortu baititut» adierazi du Lazkaoko igerilari gazteak. 50ekoan 24:55ean gelditu zuen kronoa, bere marka dezente hobetuz. 200ekoan 2:03:31 egin zuen, 50metroko igerilekuan inoiz lortu duen markarik onena, eta 100ekoan 55:03 lortu zuen, bere markatik ehuneneko batera.

Lan-saioak egunero

Egunero entrenatzen dute bi igerilariak Majori kiroldegian. «Bi orduko igeriketa sesioak egiten ditugu», adierazi du Aierzak. «Gimnasioan ere egi-

ten dugu ordu bat asteko bi egunetan», gehitu du Iturriozek. Landerrek 15 urte beteko ditu aurretik, eta infatil mailako Espainiako Udako Igeriketa Txapelketan parte hartuko du egun gutxi barru. «Gogor entrenatzen ari naiz. Dominarekin bueltatzea nahiko nuke, eta hala ez bada, emaitza onak lortzea behintzat». Egun hauetan bereziki zaindu beharra dauka txapelketara indartsu iristeko. «Eguzkirik ezin dut hartu, asko nekatzen baitu, eta bestelako kirolak egitea ere saihesten dut», zehaztu du.

Laguntza gutxi

Ordiziako Igeriketa Elkarteko bi gazteak kexu dira jasotzen duten laguntza urriagatik. «Instalaketak ez daude batera egotera onean. Uraren temperatura, esaterako, altuegia da dugun entrenamendu mailarentzat», nabarmendu du Aiertzak.

«25 metroko igerilekua dago Majorin, kale gutxiarekin, eta erabiltzaile askorekin elkarbanatu behar dugu espazioa», esan du ondotik Iturriozek. «Igeri egiten jarraitu nahi dugu, hau baita betetzen gaituen kirola. Maila handian ari gara lehiatzen eta maila hori mantentzeko beste ezaugarri batzuk dituen igerilekua beharko genuke», adierazi dute.

Babeslea



Pertonekin eta ingurunearekin konprometituta



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

HEZKUNTZA, HIZKUNTZA POLITIKA
ETA KULTURA SAILA